

Debegesak ekintzaileen aholkularitza zerbitzua Debako Liburutegian gaur

DEBA. DV. Debegesako enpresa berriak sortzen laguntzeko zerbitzua Debako Liburutegian eskeiniko da gaur ordu t ' erdian zehar. Arratsaldeko 5etatik 6.30ak arte, Debegesako egoitzan eskeintzen den zerbitzu hau debarrei hurbilduko zaie. Martxoan zehar, zerbitzua eskualdeko herri guztietatik pasako da.

Enpresa propioa sortzeko interesa duenak bere ideiak aurkeztu, kontsultatu, dudak elkarbanatu eta laguntzen inguruko informazioa jaso ahal izango du Liburutegian.

Ekimena Debegesak Ekintzailearen Eguna-ren eskualde mailan antolatu duen programaren baitan kokatzen da. 'Herriz-herriko aholkularitza zerbitzua'-ren helburua zerbitzua eskualdeko herritarrei hurbiltzea da. Debegesak Ekintzailearen Eguna dela-eta, programa bete-betea prestatu du, martxoan zehar ospatuko diren ekimen desberdinak biltzen dituen. Programa hau joan den astelehenean aurkeztu zen Debegesan.